

ESKUARA, ESKUALDUNAK ETA EYEN LORIAK



Donibaneko Euskal-festetan Oorezko bigarren aipamena kantu au eman duenari

AIREA: *Adio, Euskal-Erria.*

Gizon Eskualdun zaar ooragarriak
 Biloak churi bezein kolore gorriak,
 Itz ederrak miian, arnai arpegjak,
 Agur derauzuegu, oi gure loriak!!!

Zaarren laudatzeko beti da denbora:
 Aipa dezagun egun mintzaia Eskuara,
 Jainkoak igorria Tubalen baitarra
 Eta Tubalek bere aur guzietara.

Noeren seme bat zen Japet deitzen zena;
 Eta Tubal Japeten seme bortzgarrena
 Ura zen Espainia beretu zuena,
 Artarik da etortzen gure astapena.

Tubalen aurrak ziren Tubaloak deitzen;
 Gerochago Iberak erraiten zioten;
 Iberek Banderatzat kurutze bat zuten,
 Tubalen izenaren leen letra baitzen .—(†)

Tubal Eskualdun zela da segurtamena,
 Kurutze ark baitzuen lau-buru izena
 Tubalen aurrek berek eman ziotena:
 Eskuaraz emaiteko ori zen zuzena.

Yakintsun andienek aitortzen dutena,
 Eskuara mintzaletan dela ederrena;
 Nioiz auzokoekin naasi ez dena:
 Ortakotz deitzen dute munduko leena!

Erdi yakintsun batek omen du ustea
 Eskuarak erdaratik duela astea:
 Gaïsea! iduri dik orrek erraitea:
 Arranoa degula pikarren umea!!!

Mintzaia eder unen araberakoak,
 Gure yostetak dire pare gabekoak,
 Eskual yauziak eta pilota yokoak,
 Bi mila urte baino zaarragokoak.

Buruzagi gorenek ez zuten sinesten
 Berek ikusi gabe Eskualduna zer zen:
 Ikusiz dantzan eta pilotan aritzen
 Biba Eskual-Erria! oiu egin zuten.

Eskualdunek oraino au dugu loria,
 Guzia girstino da Eskual-Erria.
 Gure-fede azkarra beti atzarria
 Neork ezin autsi du unen lokarria.

Mendien bi aldetan, zazpi probintzia,
 Zazpiak bat zirela ez da aantzia...
 Zer biotzmin anaien ola berechtia,
 Eta librotasuna ondikoz galtzia!!!

Aurak, ikasazue Eskuaraz mintzatzen:
 Ikas pilotan eta oneski dantzatzen;
 Bai eta fedearen azkar atchikitzen
 Arbasoen iduri oroz izan gaiten.

PIERRE DIBARRART,
Baigorriko Eliza-kantariak egina.